


Araugintza I. ikastaroa



1. saioa Ortografia

Arauen laburpena
Ohiko akatsak

Ariketak



EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Ortografia. Ariketa orokorra	3
ORTOGRAFIA ARAUEN LABURPENA	5
Bat-batean, *bapatean.....	5
Bait-, *bait	5
Aurrealde, aurreko alde, *aurrekalde.....	6
Ene / nire, *nere	6
–Ain / -ai (arrain, *arrai...)	6
Zenbaki kardinalen idazkera.....	7
-Zio (amorratio, *amorratioño...).....	8
Non-nahi, nonahi, *non nahi, *nonnahi... ..	8
Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri.....	9
Euskal alfabetoa	9
ARAUAK: ARIKETAK	10
Ortografia, nahas-mahas.....	10
Zenbaki kardinalak lantzeko, besteak beste	11
Matematika eragiketak	14
Zenbakiak zifraz eta letraz	15
Zenbakiak: txekak.....	16
Loteria.....	19
-ain, -zio.....	21
Galdetzailea + nahi.....	21
Lerroz aldatzean marratxoa nola jarri.....	22
Euskal alfabetoa.....	23
Hiztegi Batuan zer izen ematen zaie elementu hauei?	23
OHIKO AKATSAK: TEORIA	24
OHIKO AKATSAK: ARIKETAK	26
Letra xehez idazten diren zenbait izen berezi	26
Kantitateak eta produktua.....	27
Salneurria	27
Tanteoa.....	27
Milatik gorako zenbakiak.....	28
Erdia / erdiak.....	28

Ortografia. Ariketa orokorra

Hauta itzazu zuzenak direnak (kontuan izan ezazu multzo bakoitzean bakarra aukeratu behar dela)

1.

- 1.1. a) Bileran geundela, bat-batean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.
b) Bileran geundela, bapatean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.
c) Bileran geundela, bat batean altxatu eta alde egin zuen deus ere erran gabe.

- 1.2. a) Zuk, behinik-behin, badakizu nola jokatu behar den.
b) Zuk, behinipein, badakizu nola jokatu behar den.
c) Zuk, behinik behin, badakizu nola jokatu behar den.

- 1.3. a) Batik-bat zuregatik egin dut honainoko bidaia luzea.
b) Batipat zuregatik egin dut honainoko bidaia luzea.
c) Batik bat zuregatik egin dut honainoko bidaia luzea.

2. a) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitx lanpeturik bait gabiltza.
b) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitx lanpeturik baitgabiltza.
c) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitx lanpeturik baigabiltza.
d) Ez dut uste garaiz iritsiko garenik, hagitx lanpeturik baikabiltza.

3. a) Ikastetxearen aitzinkaldean (aurrekaldean) dago kiroldegia.
b) Ikastetxearen aitzinaldean (aurrealdean) dago kiroldegia.
c) Ikastetxearen aitzinekoaldean (aurrekoaldean) dago kiroldegia.

4. a) Neretzat erosi al duzue liburu hau?
b) Neri eman behar didazue dirua.
c) Joanen zarete nirekin?



5. a) Zuen zai zegoen asper-asper eginda.
b) Zuen zain zegoen asper-asper eginda.
6. a) Hama bortz lagun baino ez dira etorri ikastarora.
b) Berrogei eta bortz lagun baino ez dira etorri ikastarora.
c) Berrogeita bortz lagun besterik ez da etorri ikastarora.
d) Berrogei ta bortz lagun besterik ez da etorri ikastarora.
7. a) Administrazioaren aurrean ezer gutxi egin dezakegu.
b) Administraziñoaren aurrean ezer gutxi egin dezakegu.
c) Administrazionearen aurrean ezer gutxi egin dezakegu.
8. a) Nonahi aurkitzen ahal da zurea bezalako autorik.
b) Nonnahi aurkitzen ahal da zurea bezalako autorik.
c) Non nahi aurkitzen ahal da zurea bezalako autorik.
9. a) Ez dakit noiz etorriko diren, eta hementxe naukate zain larunbatetik.
b) Ez dakit noiz etorriko diren, eta hementxe naukate zain larunbate-tik.
10. a) Hauxe da X letraren euskal izena: *Ixa*.
b) Hauxe da X letraren euskal izena: *Ekix*.
c) Hauxe da X letraren euskal izena: *Ekis*.



ORTOGRAFIA: ARAUEN LABURPENA

Bat-batean, *bapatean...

(1. araua, 9. or.)

Honela idatzi behar dira hitz hauek:

-Bat-batean eta ildo beretik **bat-bateko** eta **bat-batekotasun**.

-Behinik behin.

-Batik bat.

Beraz ez idatzi beste formarik: **bat batean, *behinik-behin, *batik-bat, *bapatean, *behinipein, *batipat, etab.*

Honekin batera, Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du esapide hauen ahoskerak betiko legeen arabera egitea ongi dela: *bapatean, batipat...*

Bait-, *bait

(2. araua, 11. or.)

Bait- partikula beti aditzari lotua idatziko da, dagokion aldaketa grafikoa eginez.

- Bait- + d- >**bait-** : baitator, baitoa, baita, baitugu...
- Bait- + n- >**bain-** : bainator, bainoa, bainenbilen...
- Bait- + h- >**baih-** : baihator, baihoa, baihengoan...
- Bait- + l- >**bail-** : bailetorke, bailitzateke...
- Bait- + g- >**baik-** : baikinen, baikentozen...
- Bait- + z- >**baitz-**: baitzeturren, baitzuen...

Beraz, ez idatzi bereiz: **bai gara, *bait gara, *bait naiz, *bai luke, etab.*

Aurrealde, aurreko alde, *aurrekalde...

(3. araua, 13. or.)

Bi era desberdin hauetan idatz daitezke esapide hauek

- **Aitzinalde** edo **aitzineko alde**
- **Atzealde** edo **atzeko alde**
- **Azpialde** edo **azpiko alde**
- **Barnealde** edo **barneko alde**
- ...

Ez idatzi, beraz, **aitzinkalde*, **atzekalde*, **goikalde*, **barnekalde*, etab.

Ene / nire, *nere

(5. araua, 17. or.)

Genitiboan, maila jasoan, “**ene**” idatz daiteke. Gainerako erabileretan:

- **Nire**
- **Nirekin**
- **Niretzat**, **niretzako**
- **Niri**
- ...

Ez idatzi, beraz, **nere*, **nerekin*, **neretzat*, etab.

–Ain / -ai (arrain, *arrai...)

(6. araua, 19. or.)

Bukaeran **–ain** eta **–ai** aldaerak dituzten hitzetan **–ain** bukaeradun formak erabili:

- **Arrain**
- **Usain**
- **Zain** (eta honen eratorriak diren **artzain**, **atezain**, **diruzain**, **itzain**, etab.)
- **Dohain**
- **Orain**
- ...

Baina, kasu, zeren eta **mahai** idatzi behar baita eta ez **mahain*.

Hortaz, ez idatzi: **arrai*, **usai*, **zai*, etab.



Zenbaki kardinalen idazkera

(7. araua, 21. or.)

Honela idatziko dira zenbatzaile kardinala:

0	Huts, zero	60	hirurogei / hiruretan hoge
1	bat	70	hirurogeita hamar
2	bi	80	laurogei / lauretan hoge
3	hiru	90	laurogeita hamar
4	lau	100	ehun
5	bost / bortz	150	ehun eta berrogeita hamar
6	sei	200	berrehun
7	zazpi	300	hirurehun
8	zortzi	400	laurehun
9	bederatzi	500	bostehun / bortzehun
10	hamar	600	seiehun
11	hamaika	700	zazpiehun
12	hamabi	800	zortziehun
13	hamahiru	900	bederatziehun
14	hamalau	1.000	mila
15	hamabost / hamabortz	2.000	bi mila
16	hamasei	2.500	bi mila eta bostehun
17	hamazazpi	2.525	bi mila bostehun eta hogeita bost
18	hemezortzi / hamazortzi	3.000	hiru mila
19	hemeretzi	500.000	bostehun mila / bortzehun mila
20	hoge	1.000.000	milioi bat
30	hogeita hamar	1.000.000.000	mila milioi / miliar bat
40	berrogei	1.000.000.000.000	bilioi bat
50	berrogeita hamar		

Oharrak:

- **Ehun eta bat** zenbakian eta hortik gorakoetan ez da beharrezkoa *eta* hori oso-osorik ahoskatzea eta mintzairen arabera *eta*, *ta* edo *da* bezala ahoska daiteke.
- **Mila** zenbakitik gora *eta* kenduko da ondoren datozen ehunekoetan ere agertzen bada: *mila eta berrehun*, baina *mila berrehun eta bi*; *mila eta laurehun*, baina *mila laurehun eta bi*.
- **2** zenbakia adierazteko *bi* jarri den arren, puntu honetaz aurrerago mintzatuko da Euskaltzaindia, aukera bat baino gehiago baitago euskalkien artean (*biga*, *bida*, e.a.). Bestetik, noiz erabil daitezkeen forma hauek ere zehaztu beharra dago.



-Zio (amorrazio, *amorraziño...)

(9. araua, 35. or.)

-zio, -zino, -ziño, -ziño^e edo -zione aldaerak dituzten hitzetan, euskara baturako erabil bedi -zio aldaera:

- **Amorrazio**
- **Integrazio**
- **Burutazio**
- **Instalazio**
- ...

Ez erabil, beraz, *amorrazzino, *amministrazione, *debozione, etab.

Non-nahi, nonahi, *non nahi, *nonnahi...

(10. araua, 37. or.)

Galdetzaile batez eta **nahi** partikulaz osaturiko esapideak hitz bakar batean idatziko dira:

- **Zernahi**
- **Nornahi**
- **Nolanahi**
- ...

Baina lehen osagaia **n-z**, **t-z** edo **k-z** bukatzen bada, hitz bakar batean edo marratxo baten bidez bereizita idatziko da:

- **Nonahi** edo **non-nahi**
- **Zenbanahi** edo **zenbat-nahi**
- **Nondinahi** edo **nondik-nahi**
- ...

Ez idatzi, beraz, *nor nahi, *nonnahi, etab.

Lerroz aldatzean marratxoak nola jarri

(13. araua, 45. or.)

Euskaltzaindiak hitzak silabaka zatitzea gomendatzen du.

Euskal alfabetoa

(17. araua, 113. or.)

Euskal alfabetoa 27 letra hauek osatzen dute: **a, b, c, d, e, f, g, h, i, j, k, l, m, n, ñ, o, p, q, r, s, t, u, v, w, x, y, z.**

LETRA	IZENA	LETRA	IZENA	LETRA	IZENA
a	<i>a</i>	j	<i>jota</i>	r	<i>erre</i>
b	<i>be</i>	k	<i>ka</i>	s	<i>ese</i>
c	<i>ze</i>	l	<i>ele</i>	t	<i>te</i>
d	<i>de</i>	m	<i>eme</i>	u	<i>u</i>
e	<i>e</i>	n	<i>ene</i>	v	<i>uve</i>
f	<i>efe</i>	ñ	<i>eñe</i>	w	<i>uve bikoitza</i>
g	<i>ge</i>	o	<i>o</i>	x	<i>ixa</i>
h	<i>hatxe</i>	p	<i>pe</i>	y	<i>i grekoa</i>
i	<i>i</i>	q	<i>ku</i>	z	<i>zeta</i>

Hauetatik **c**, (**ç**), **q**, **v**, **w** eta **y** kanpotar izenak transkribatzeko erabiliko dira.

ARAUAK: ARIKETAK

Ortografia, nahas-mahas

Egin itzazu egin beharreko zuzenketak hurrengo esaldietan.

1. Bat-batean hil omen zen gajoa.
2. Bapateko kontua izan da, antza.
3. Neuk, behinik-behin, ez dut deus ere erranen.
4. Lehen deitura, behinik behin, aitarena dauka.
5. Perretxiko horiek Urbasa aldean aurkitzen dira batik bat.
6. Azaroaren 21eko Foru Agindua, zeinaren bidez onesten bait da EGA berriaren egitura, ...
7. Ikastetxearen aurrekaldeko aparkalekuan daukat autoa.
8. Zubi zaharraren atzekaldean egoten dira eguzkitan.
9. Neretzako oparia armairuaren goikaldean dago.
10. Neretzat hori ez da, inondik inora ere, jokabide zuzena.
11. Berrogeitabost lagun inguru bildu bide ziren atarian.
12. Bi mila berrehun ikaslek hartu zuten parte manifestazioian.
13. Hogeitalau bidarirentzako lekua dauka autobus honek.
14. Komunikazinoa ezinbestekoa da elkar ulertuko badugu.
15. Kutxazai automatiko batetan aterako dugu dirua.
16. Frantziara joan eta nonahi topa daiteke garaje on bat.
17. Nor nahik egin dezake erreklamazinoa.
18. Asteburu batzutan irekita egoten da, baina ez zeinnahi ordutan.



Zenbaki kardinalak lantzeko, besteak beste

Letraz idatz itzazu beltzez nabarmenduta dauden zenbakiak. Horrez gain, eman itzazu azpimarraturiko hitzen sinonimoak.

Behin, Europako hiri handi batean, olerkari **pobre** bat bizi zen. Olerkari honek, ehun urteak bete ez zituen arte, ez zuen inoiz hilen ez zelako **esperantza** galdu. Baina honek axola gutxi digu egun.

Olerkaria lantegi bateko administraria zen, **15** (.....) urterekin sartu zen han lanean, eta **85** (.....) urte egin arte ez zuten jubilatatu. Bulego **mehar** eta ilun batean **igaro** zuen bere bizitza luzea, eta baita bere bertso ederrak hantxe moldatu ere.

Ez zeukan izenik, edo ez daki inork izenik zeukanik, eta soldata kobratzen zuenean, sinadura beharrean, zentzu gabeko lerro bihurri batzuk ipini ohi zituen. Inori ez zitzaion **inoiz** axola izan. Guri ere ez, gaur egunean, bere bertsoak gordetzen ez delako.

Gaztetan asko irakurri zuen, eta gizon denboran **asko** idatzi. Bulego zuloan eman zituen **aurreneko 2** (.....) urteetan ez zen bere **zortzarekin** konforme, eta **apustua** egin zion bere buruari: kontu-liburuetan idatziriko zenbaki bakoitzagatik, bertso baterako puntu **1** (.....) moldatuko zuela. Minutu bakoitzean numero bi idazten zituen. Puntu 2, **beraz**, bere paperetan. **Orduak 60** (.....) minutu dituenek, **120** (.....) puntu idazten zituen ordu bakoitzeko, eta egunean **1.440** (.....) puntu. Urtean **300** (.....) egunetan egiten zuenez lan, **432.000** (.....) puntu **idazten** zituen. Urteak joan eta urteak etorri, **50** (.....) urteak bete zituen arte idazten jarraitu zuen. Honela, bizitzan zehar **14.256.000** (.....) puntu idatzi zituen.

Igande eta jaiegunetan bere bertsoak osatzen eta atontzen zituen. Astean zehar eginiko puntu guztiak launaka biltzen zituen bertsoetan, bertsoak ehunaka kantuetan, eta kantuak hamarnako liburuetan. Honela, bere bizitza erdian **3.564** (.....) liburu idatzi zituen.

Liburuak idazteko papera lantokiko horniduratik hartzen zuen. Paper lodia zen eta orri bakoitzak erreal bat balio zuen. Paper bakoitzean **5** (.....) bertso kabitzen zitzaizkion. Dotoreago gelditzeko beste paper batzuk ere tartekatu zituen, apaindura eta koloreekin. Honela, liburu bakoitzak **250** (.....) orri zituen. Kontulari olerkariak idazten zuen liburu bakoitza **100** (.....) pezeta kostatzen zitzaion lantegiari, guztira **356.000** (.....).

Hilean, **3.000** (.....) pezeta irabazten zituen eta bulegoan ematen zuen denboraren erdia bertsoak osatzen ematen zuenez, bere liburuak **594.000** (.....) pezeta kostatu zitzaizkion fabrikari; eta paperarekin, **950.400** (.....) pezeta. Dirutza hori **apurka-apurka ostu** beharrean, dena batera harrapatu izan balu, **automobil** bat eta etxe bat erosteko **beste** edukiko zukeen. Modu horretan ez zuen **lan** egiteko premiarik izango.

Liburuak gela aparte batean gordetzen zituen. **50** (.....) urte bete zituenean, sartu zen gela hartan azken liburuak gordetzera. Eta **izaturik** geratu zen, liburu berria non ipinirik ez zeukala ikusi zuenean.



Bere **golkorako** pentsatu zuen: -Gehiegi idatzi dut. Hainbeste bertsoaren artean, ez ote da baliorik gabeko gauza asko egongo? Eta bere bihotzean **duda** sakona piztu zitzaion. Duda horren aurkako borrokan eman zuen hurrengo urtea, eta gauza bat **erabaki** zuen: Bere liburu guztiekin beste handiago eta luzeago bat egingo zuela, alegia. Liburuak launaka hartzen zituen, eta soberan zeuden bertsoak kendurik, laurekin berria osatzen zuen. Modu horretan, **891** (.....) liburu geratu zitzaizkion. Hauekin beste hainbeste egin zuen eta **hondarrean** **223** (.....) gelditu.

Hauek **atzera** bildurik, hasieran **56** (.....), gero **14** (.....), eta azkenean **3** (.....) osatu zituen. Hiru hauekin azkenean bakarria egin zuen. Hau egiten, **40** (.....) urte **bederen** behar izan zituen; honela gutxi gorabehera **12** (.....) egun eman zuen laburkuntza bakoitzean. **3.564** (.....) liburuetatik bat bakarrik **utzi** zuen, eta **14.256.000** (.....) puntuetatik **6** (....) puntuko **7.263** (.....) bertso, guztira **43.578** (.....) puntu. Guztira **14.212.422** (.....) puntu ezabatu zituen, **40** (.....) urtean.

Baina **10** (.....) urte zeuzkan oraindik jarduteko, eta aurrera joateko erabakia hartu zuen. Ederki asko zekien hainbeste jolasetan biziaren arrazoia aurkitua zuela, eta, orain, liburu hartan bere begien aurrean zeukala bertso artean ezkutaturik.

Bere bizitzako azken 10 urteetan, puntuak ezabatzen jardun zuen. Duda sakonak egiten zitzaizkion puntu bakoitza borratzeko, baina gauza guztiak ondo aztertu eta gero, ez zuen batere **urrikalmendurik** izaten. Eta bat utzirik, beste guztiak borratu egin zituen azkenean. Hauxe izan zen gelditu zena:

“Gizakiaren gorputza
buztinezkoa da”.

Biharamunean hil egin zen.

Olerkari guztiak bezala, infernura joan zen. Han deabru batek hartu zizkion kontuak. Demonioak esan zuen bere golkorako:

-**Etsaminatu** dezadan arima hau. Ea nola erretzen dugun: olioeko sutan ala egurrezko sutan.

Eta honela mintzatu zitzaion olerkariari:

- Urlia, ehun urte bizi zara. Zer izan zara?
- Olerkaria.
- Ea zer probetxu atera duzun zure bizitzatik. Zer idatzi duzu? Erakutsi!
- Bertso hau.

- Eta bertso hau idazten ehun urte behar izan dituzu? Hogeita letra dauzka. Letra bakoitza idaztea bost urte kostatu zaizu. Hainbeste zorakeria izan ez bazenu buruan zure **hautzaroan**, jakingo zenukeen hori; kristau dotrina irakurriko baitzenuen. Orain, pospolu baten garretan erreko zara eternitate guztian. Amen.

Gabriel Aresti (moldataua)



Has gaitezen Arestiren ipuineko hitz hauen SINONIMOEN BILA:

Pobre:	Automobil:
Esperantza:	Beste:
Mehar:	Lan:
Inoiz ez:	Izuturik:
Gaztetan:	Golkorako:
Asko:	Duda:
Aurreneko:	Erabaki:
Zortearekin:	Hondarrean:
Apustua:	Atzera:
Beraz:	Bederen:
Orduak:	Utzi:
Idazten:	Urrikalmendurik:
Apurka-apurka:	Etsaminatu:
Ostu:	Haurtzaro:



Matematika eragiketak

Irakur itzazu ondoko matematika eragiketak.

Ondoren, idatz itzazu letraz.

- a) $100 \times 25 = 2500$; $9 - 5 = 4$; $250 - 4 = 246$
- b) $2.100 + 10 = 2.110$; $110 \times 6 = 660$
- c) $10 + 8 = 18$; $50 \times 18 = 900$; $900 + 75 + 4 = 979$
- d) $10 - 7 = 3$; $100 + 3 = 103$; $75 : 25 = 3$; $103 \times 3 = 309$
- e) $5^2 = 25$
 $5 \times 10^3 = 5000$
- f) $^2\sqrt{16} = 4$
- g) $^3\sqrt{27} = 3$

Ikurra	Esatera	Adierazpena	Eragigaiak		Eragiketa	Emaitza
+	Gehi	$a + b$	Batugaiak		Batuketa	Batura
-	Ken	$a - b$	Kenkizuna	Kentzailea	Kenketa	Kendura
x	Bider	$a \times b$	Biderkakizuna	Biderkatzailea	Biderketa	Biderkadura
:	Zati	$a : b$	Zatikizuna	Zatitzailea	Zatiketa	Zatidura
^a	Ber	b^a	Berrekizuna	Berretzailea	Berreketa	Berretura
$\sqrt{\quad}$	Erro	$b\sqrt{a}$	Errokizuna	Errotzailea	Erroketa	Errodura



Zenbakiak zifraz eta letraz

Eman letraz zenbakizko adierazpen hauek:

- 22,13 _____
- 77,886 _____
- $\frac{2}{5}$ _____
- % 51 _____
- 22-18 amaitu zen pilota partida. _____
- 0,75 _____
- $\frac{5}{7}$ _____
- 3-1 irabazi dio Osasunak Realari. _____
- 0-0 gelditu dira bi taldeak. _____
- 50. urteurrena ospatu dute. _____
- 80ko hamarkadan jaiotakoek ez dute diktadura ezagutu. _____
- Ligako 9. jardunaldian bihurritu zuen orkatila Krutxagak. _____
- Donostiako XX. Jazzaldia. _____
- XXI. mendeko gizartea. _____
- $\frac{1}{2}$ _____
- 45. orrialdean irakurriko duzu hori. _____
- $7 + 8 = 15$ _____
- $5 \times 60 = 300$ _____
- $10.555 - 1.500 = 9.055$ _____
- $600 : 30 = 20$ _____
- $\sqrt{9} = 3$ _____
- $3^2 = 9$ _____

Eman zenbakiz letraz dauden adierazpen hauek:

- *Irailaren hamaikan* gertatu zen Dorre Bikien aurkako eraso.
- *Kristo aurreko bigarren mendetik aurrera.*
- *Isabel Lehena* Ingalaterrakoa *Enrike Zortzigarrenaren* alaba zen.
- *Retegi Bigarrenak* irabazi zuen *laurogeita seiko* pilota txapelketa.
- Ikasleen *ehuneko zazpi* Ikerren alde daude.
- Batez beste *sei eta erdi* atera behar da biologia azterketa gainditzeko.

Zenbakiak: txekeak

Bete itzazu txekeak ondoko datu hauekin:

Nori	Kopurua	Non	Data
Eramailea	3.200	Tutera	04/02/23
Mirari Agirre	11.318	Gares	05/01/30
Xabier Zubeldia	636,67	Elizondo	06/04/14
Laura Sotes	25.445,50	Arruazu	07/03/05
Edorta Fernandez	19.003,05	Berriozar	04/12/21

TXIN-TXIN AURREZKI KUTXA

EURO..... C

Txeke honen truke, ordaindu

.....(r)i

Zenbat euro

.....
.....

..... Titularraren sinadura

Heria eta data letraz idatzi



TXIN-TXIN AURREZKI KUTXA

EURO..... €

Txeke honen truke, ordaindu

.....(r)i

Zenbat euro

.....
.....

..... Titularraren sinadura

Heria eta data letraz idatzi

TXIN-TXIN AURREZKI KUTXA

EURO..... €

Txeke honen truke, ordaindu

.....(r)i

Zenbat euro

.....
.....

..... Titularraren sinadura

Heria eta data letraz idatzi





TXIN-TXIN AURREZKI KUTXA

EURO..... €

Txeke honen truke, ordaindu

.....(r)i

Zenbat euro

.....
.....

..... Titularraren sinadura

Heria eta data letraz idatzi

TXIN-TXIN AURREZKI KUTXA

EURO..... €

Txeke honen truke, ordaindu

.....(r)i

Zenbat euro

.....
.....

..... Titularraren sinadura

Heria eta data letraz idatzi



Loteria

Gabonetako loteria dela-eta, ohitura da elkarteek partizipazio-txartelak ateratzea, herritarroi, loteriarekin batera, laguntza eskatzeko; edo norberak, dezimoren bat edo beste erosi eta gero, senideen artean partizipazioak banatzea.

Lan honen asmoa horixe da; alegia, zenbait argibide eskaintzea, partizipazioa euskaraz egin dezaten.

<p>Gaztibia euskara elkarte</p>	<p style="text-align: center;">Gaztibia euskara elkartea Larramendi 11, 3. ezk. Tel. 948 33 45 67 Arralde</p>
<p>Gabonetako Loteria 99.999 2003ko abenduaren 22an zozketatuko den Loteria</p> <p>Jokatutakoa 4€ Laguntza 1€ Guztira 5 €</p> <p>Txartela: 0251 Eroslearen izena:</p>	<p style="text-align: center;">GABONETAKO LOTERIA</p> <p style="text-align: center;">Zenbakia: 99.999</p> <p style="text-align: right;">Gordailuzaina (sinadura)</p> <hr/> <p>Zenbaki horretan, agiridunak 4€ jokatzen ditu 2003ko abenduaren 22an Madrilen zozketatuko den Loteria Nazionalen.</p> <p style="text-align: center;">Jokatutakoa: 4€ / Laguntza: 1€ Guztira 5€ <i>Txartela: 0251</i></p> <p>Saria jasotzeko epea: 3 hilabete. Urratutako txartelak edo zuzendutakoak ez du balio izango</p>

OHARRA: informazio zabalagoa nahi baduzu, IVAP-en *Administrazioa euskaraz* aldizkariaren 39. zenbakian edota www.ivap.org web orriko *Administrazio @ euskaraz* atalean aurkituko duzu.



Gaztibia euskara elkarte	Gaztibia euskara elkarte Larramendi 11, 3. ezk. Tel. 948 33 45 67 Arralde
Gabonetako Loteria Zenbakia: <hr/> 2004ko apirilaren 5ean zozketatuko den Loteria Jokatutakoa 4€ Txartela: 0251 Eramailaren izena:	<p style="text-align: center;">-----GABONETAKO LOTERIA</p> <p style="text-align: center;">Zenbakia: __45.670__</p> <p style="text-align: right;">Gordailuzaina (sinadura)</p> <hr/> <p>Zenbaki horretan, agiridunak 4€ jokatzen ditu 2004ko apirilaren 5ean Madrilen zozketatuko den Loteria Nazionalen.</p> <p style="text-align: center;">Guztira 4€ <i>Txartela: 0251</i></p> <p>Saria jasotzeko epea: 3 hilabete. Urratutako txartelak edo zuzendutakoak ez du balio izango</p>

Gurutze Gorriko Loteria Zenbakia: 31.500	<p style="text-align: center;">-----GURUTZE GORRIKO LOTERIA</p> <p style="text-align: center;">Zenbakia: ____31.500__</p> <p style="text-align: right;">Gordailuzaina (sinadura)</p> <hr/> <p>Zenbaki horretan, agiridunak 6€ jokatzen ditu 2005eko urriaren 11n Bartzelonan zozketatuko den Loteria Nazionalen.</p> <p style="text-align: center;">Jokatutakoa: __6__€ <i>Txartela: 0251</i></p> <p>Saria jasotzeko epea: 3 hilabete. Urratutako txartelak edo zuzendutakoak ez du balio izango</p>
2007ko abuztuaren 15ean zozketatuko den Loteria Jokatutakoa: __6__€ Txartela: 0251 Eramailaren izena:	

Jokatutakoa	Data	Jokatutakoa	Data
4€	2004/5/5	6€	2005/10/11

ZENBAKIAK
<i>Berrogeita bost mila seiehun eta hirurogeita hamar</i>
<i>Hogeita hamaika mila eta bostehun</i>



-ain, -zio

Aukera itzazu forma zuzenak

1. dohain	aurrekoalde	usai
2. haurtzai	goialde	beheko alde
3. barren-alde	atezain	diruzai
4. atzealde	atzekalde	atzeko alde
5. gibelalde	itzai	itzain
6. barrukalde	gain-alde	kanpo alde
7. aurrealde	aurrekoalde	aurre-alde
8. usain	gotzai	azpikalde

Galdetzailea + nahi

Aukera anitzeko galderak

1. Zein da forma zuzena?
 - a) nonnahi
 - b) zer-nahi
 - c) nolannahi
2. Zein da **okerra**?
 - a) zenbat-nahi
 - b) nondik-nahi
 - c) nola-nahi
3. Zein da zuzena?
 - a) nola nahi
 - b) zer nahi
 - c) zeinahi
4. Zein da zuzena?
 - a) nor nahi
 - b) zein-nahi
 - c) nondik nahi



Lerroz aldatzean marratxoa nola jarri

Nola idatzi hitzak lerroz aldatzean?

1				
2				
3				
4	kre	sa	la	
5				
6				
7				
8				
9				
10				
11				
12				

Aukera itzazu beheko definizioei dagozkien hitzak eta idatzi silabaka goiko laukietan.

1. Indar gabe, lur jota geratu
2. Temperatura ura izozteko puntutik beherakoa deneko giroa
3. Abere ernaldia
4. Itsasoko ur gazia
5. Ugaritasun handia duena
6. Nahaste-borrastea
7. Neurri gabe gastatu
8. Besteren onagatik tristura edo min hartzea
9. Hildako animalien okela jaten duen hegazti harraparia
10. Euskal mitologian emakumezko pertsonaia
11. Kolore berdeko animalia narrastia
12. Izenik aipatu gabe, hirugarren pertsona bat izendatzeko modua

**Joria – urlia – ahitu – muskerra – xahutu –
leia – lamia – ernaria – anabasa – saia – kresala – bekaitza**

Nola idatzi hitzak lerroz aldatzean?

1						
2						
3						
4						

Idatzi silabaka ondorengo hitzok goiko taulatxoan:

besaulki – saiheski – bekaizkeria - aitzakia



Euskal alfabetoa

Euskal alfabetoa 27 letra hauek osatzen dute. **Idatz itzazu izenak:**

LETRA	IZENA	LETRA	IZENA	LETRA	IZENA
a		j		r	
b		k		s	
c		l		t	
d		m		u	
e		n		v	
f		ñ		w	
g		o		x	
h		p		y	
i		q		z	

Hiztegi Batuan zer izen ematen zaie elementu hauei?

()	
.	
,	
?	
!	
“ “	
A, B, C, D, E, F, G...	
a, b, c, d, e, f, g, h...	
A letratik Z letrara	
@	

OHIKO AKATSAK: TEORIA

1. Badira letra xehez idazten diren zenbait izen berezi. Hona hemen, kasu nahasgarri batzuk:
 - *Urtaro, hilabete eta aste-egunak: udazken, irail, igande...* Datak idaztean ere hilabeteen izenak letra xehez izkiriatu behar dira: *2001eko urriaren 22an...*

2. Ohiko akatsetako bat, kopuru edo kantitateak ematean, gaia edo produktua adierazten duen hitzari artikulua jartzean datza. Adibidez:

*Hiru kilo sagarrAK	Hiru kilo sagar.
*Litro bat esneA.	Litro bat esne.
*Platerkada bat indaba gorriAK.	Platerkada bat indaba gorri.
*Dozena bat piper berdeAK.	Dozena bat piper berde.

3. Agian, akatsik hedatuena gaia edo produktua adierazten duen hitza kantitatearen edo kopuruaren aurretik jartzean datza. Adibidez:

*PATATA kilo bat.	Kilo bat PATATA.
*Ur baso bat.	Baso bete UR.
*Bi ARDO litro.	Bi litro ARDO.
*Hiru ESNE kutxa.	Hiru kutxa ESNE.

4. Zenbait hiztunek, gaztelaniaren eraginez, salneurria adierazteko, *NORENGATIK* kasu-marka erabiltzeko ohitura daukate. Gogoratu deklinabide-kasu honek *kausa edo zergatia* adierazten duela, ez salneurria. Adibidez:

*Ehun euroGATIK saltzen dut.	Ehun euroTAN saltzen dut.
*Sei euroGATIK erosi dut.	Sei euroTAN erosi dut.
*BakoitzaGATIK hiru euro dira.	BakoitzEKO hiru euro dira.
*Hiru zentimo fotokopiaGATIK.	Hiru zentimo fotokopiaKO.

5. Maizegi, tanteoa adierazteko esapideak gaztelaniatik hartu ohi dira hitzez hitz, jatorrizkoak erabili beharrean. Adibidez:

*Zazpi-sei doaz.	Zazpi ETA sei daude.
*Bost-bat irabazi dugu.	Bost ETA bat irabazi dugu.
*BATERA doaz.	BANA daude.
*SEI-SEI geratu dira.	SEINA geratu dira.



6. Askotan, erdararen eraginez, milakoaren atzean jarri behar den *ETA* ez da jartzen. Adibidez:

- **Mila bederatziehun euro.* Mila ETA bederatziehun euro.
- **Hiru mila berrehun libera.* Hiru mila ETA berrehun libera.
- **Bi mila hamabi urte.* Bi mila ETA hamabi urte.

7. Zenbait hiztunek, erdararen eraginez edo, *multzo* baten zatikiak adierazteko, singularra erabiltzeko joera dauka. Gogoratu objektu baten zatikiak singularrez adierazten badira ere, multzo baten zatikiekin *plurala* (erdiAK) erabili behar dela. Adibidez:

- **Gonbidatuen erdiA falta da.* Gonbidatu(en) erdiAK falta dira.
- **Liburuen erdiA apurtuta daude.* Liburu(en) erdiAk apurtuta daude.
- **ErdiA oraindik ez dira heldu.* ErdiAK oraindik ez dira heldu.

8. Zenbait euskaldunek, *ordubete*, *astebete*, *urtebete*, eta abarren orde, bat zenbatzailea erabiltzen du. Horrelakoetan, egokiagoa da aipatutako esapideak erabiltzea. Adibidez:

- **Ordu BAT barru itzuliko naiz.* OrduBETE barru itzuliko naiz.
- **Aste BAT falta da amaitzeko.* AsteBETE falta da amaitzeko.
- **Mikeltxok urte BAT dauka.* Mikeltxok urteBETE dauka.
- **Edalontzi BAT urez beteta edan du.* Edalontzi BETE ur edan du.

Ilari eta Entzi Zubiriren *Euskal gramatika osoa*
liburutik jaso eta moldatua



OHIKO AKATSAK: ARIKETAK

Letra xehez idazten diren zenbait izen berezi

A. Aukera anitzeko galderak

1. Aukeratu zuzena:

- Heldu den asteazkenean, Ekainak 29, hasiko dira jaiak.
- Heldu den Asteazkenean, Ekainak 29, hasiko dira jaiak.
- Heldu den Asteazkenean, ekainak 29, hasiko dira jaiak.
- Heldu den asteazkenean, ekainak 29, hasiko dira jaiak.

2. Aukeratu zuzena:

- San Tomas eguna Neguan izaten da, Abenduaren 21ean.
- San Tomas eguna neguan izaten da, Abenduaren 21ean.
- San Tomas eguna neguan izaten da, abenduaren 21ean.
- San Tomas eguna Neguan izaten da, abenduaren 21ean.

3. Aukeratu zuzena:

- Etzi, Hilak 23, hasiko da Euskaltzaindiaren Biltzarra.
- Etzi, Martxoak 23, hasiko da Euskaltzaindiaren Biltzarra.
- Etzi, martxoak 23, hasiko da Euskaltzaindiaren Biltzarra.
- Euskaltzaindiaren Biltzarra Martxoaren 23an hasiko da, hau da, Etzi.

B. Itzuli falta dena

- Mi hermano se casará en primavera, el día 25 de mayo, sábado.
Nire anaia _____ ezkonduko da, _____, _____.
- El curso comenzará el 12 de septiembre.
Ikasturtea _____ hasiko da.
- El cantante y poeta Xabier Lete nació el 5 de abril de 1944.
Xabier Lete abeslari eta olerkaria _____ jaio zen.



Kantitateak eta produktua

Itzuli falta dena

1. Compraremos un kilo de manzanas, dos litros de aceite, tres cajas de leche y dos docenas de huevos.
_____, _____, _____ eta _____ erosiko ditugu.
2. Un kilo de melocotón es más caro que dos kilos de pera.
_____ baino garestiagoa da.
3. Kilo y medio de azúcar es suficiente para hacer este postre.
_____ nahikoa da postre hau egiteko.

Salneurria

Itzuli falta dena

1. Hemos comprado todo por 25 euros.
_____ erosi dugu dena.
2. Te lo daré por seis euros.
_____ emanen dizut.
3. Dos céntimos por fotocopia no me parece nada caro.
_____ ez zait batere garestia iruditzen.

Tanteoa

A. Itzuli falta dena

1. Les hemos ganado 1-3.
_____ irabazi diegu.
2. Estamos a tres.
_____ gaude.
3. No hubo goles. Quedaron empatados a cero.
Ez zen golik izan. _____ gelditu ziren.

B. Idatzi letraz tanteo hauek

1. 22-18 amaitu zen pilota partida:
_____ amaitu zen pilota partida.
2. 3-1 irabazi dio Osasunak Realari:
_____ irabazi dio Osasunak Realari.
3. 0-0 gelditu dira bi taldeak:
_____ gelditu dira bi taldeak.





Milatik gorako zenbakiak

Aukera anitzeko galderak

1. Aukeratu zuzena.
 - a) Mila berrehun euro balio omen du.
 - b) Mila eta berrehun euro balio omen du.

2. Nola irakurri behar da hau: **2007ko azterketak**.
 - a) Bi mila zazpiko azterketak.
 - b) Bi mila eta zazpiko azterketak.

3. Zenbat da **hiru mila gehi hamabi**?
 - a) Hiru mila hamabi.
 - b) Hiru mila eta hamabi.

Erdia / erdiak

Itzuli falta dena

1. La mitad de los libros están rotos.
_____ hautsita daude.
2. Se han comido la mitad de la tarta.
_____ jan dute.
3. A que la mitad de los ejercicios están mal!
Baietz gaizki egon _____!